

KANBOKO HERRI KONTSEILUAREN BILKURA

2015eko martxoaren 9a

Herri Kontseilua herriko etxean bildu da, Vincent BRU auzapezaren lehendakaritzapean, 2015eko martxoaren 9an, astelehenarekin, arratseko zortzietan.

Bertan ziren: Vincent Bru jauna, auzapeza, Bernadette Jougoux andrea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia andrea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade andrea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru andrea eta Henri Saint Jean jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq andrea, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries andrea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard andrea, Jean-Jacques Lassus jauna, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othatceguy andrea, Maryannick Hirigoyen andrea, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez andrea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde andrea, Camille Jenvrin jauna, Argitxu Hiriart-Urruty andrea, Philippe Bacardatz jauna eta Nathalie Aïçaguerre andrea, zinegotziak.

Ezina adieraziak: Argitxu Hirigoyen andrea, Peio Etchelecu jauna, Pantxo Michelena jauna, zinegotziak.

Ahalordez: Argitxu Hirigoyen andreak Véronique Larronde andreari, Peio Etchelecu jaunak auzapez jaunari, Pantxo Michelena jaunak Argitxu Hiriart-Urruty andreari.

1 – Bilkuraren idazkaria izendatzea.

Aho batez izendatu dute, bertan zirenek, Christiane Hargain-Despéries andrea, bilkuraren idazkari lanak egin ditzan.

2 – Azken bilkuraren jakinarazte-akta onartzea.

Auzapez jaunak kontseilukideei galde egin die ea zer erranik baduten, aitzineko bilkuraren, hau da 2015eko otsailaren 16ko bilkuraren bildumaren gainean. Oharrik ez denez egin, azken bilkuraren jakinarazte-akta aho batez onartu dute.

A. Hiriart-Urruty andreak galde egin du ea herri kontseiluko bilkurak graba daitezkeen.

Auzapez jaunak erantzun dio bilkurak grabatuak direla beti, mikroak jarri zituztenetik.

3 – 2014ko kudeaketa kontuen bozkatzea.

Auzapez jaunak Herri Kontseiluari proposatu dio Chantal Martin andreak, Diru Publikoen Zuzendaritza Nagusiaren kontulariak aurkeztu 2014ko kudeaketa kontuak

bozka ditzan. Finantzen axuantari hitza eman dio eta Ch. Devèze jaunak argitu du Diruzaintza Publikoak kudeaketa kontuak transmititu dituela eta haien agiria 2014ko administrazio kontuenaren berdina dela.

Bozkatzera emanak izan dira 2014ko kudeaketa kontuak eta aho batez onartuak.

4 – 2014ko administrazio kontuen bozkatzea.

Auzapez jaunak, hitza Ch. Devèze, diruen ardura duen axuant jaunari utzi baino lehen, batzarrari galde egin dio bilkura buru bat hauta dezan, auzapezak eztabaida bitartean parte har baitezake bilkuran, baina administrazio kontuen bozketa garaian alde egin behar duelako, ordea.

Auzapez jaunak B. Jogleux andrea, lehen axuanta, proposatu du bilkura buru izateko eta beste hautagairik baden galde egin du.

Aho batez izendatu dute B. Jogleux andrea bilkura buru, eta Jogleux andreak Ch. Devèze jaunari eman dio hitza. Azken horrek 2014ko administrazio kontuak aurkeztu ditu, iragan martxoaren 4ean bildu zen Finantza batzordeak aztertu zituen berberak.

➤ Aurrekontu nagusia

Devèze jaunak funtzionamendu eta inbestimendu atalak aurkeztu ditu, 2013 urtekoekin erkatuz.

Funtzionamenduko diru-sartzeak: 6 228 329,25 €, eta atal horretako gastuak, berriz: 5 409 142,54 €, hau da, soberakina: 819 18671 €.

Finantzen axuantak argitu du artikuluz artikuluz azalduko duela administrazio kontua eta gero gai nagusietara etorriko dela.

Devèze jaunak zenbait apaltze aipatu ditu: Arnaga museoko sartzeara eta salmentena, egonaldi zergarena -iragan uztailaren 4ko uholdeen ondorioz-, herriko langileen zerbitzua, eskualdaketa eskubideen zerga erantsiarena, hiru zergen emaitza gutxi emendatzea, rol osagarrien gibelatzea, langintza zergarena, zerga hori herriari ematen dion herri elkargoaren mailan gertatzen diren konpentsatzeengatik. Ekarpenen apaltzea seinalatu du, bai eta lanagatik zergaren gaineko progresio aukera eskasa. Eraikinen diru-sartzearen apaltzea aipatu du ere, iragan uztailaren ondorioz, Vacancier-en ekarpena denboran barreiatua izan dadin galde egin baitzaigu.

Atal honetako benetako diru-sartzeak: 6 106 401,53 €, eta horiei agindu bidezko diru-sartzeak eransten zaizkio, honako kopurua osatzen dutelarik: 121 927,72 €; guztia batuz, hona funtzionamendu diru-sartzeen kopurua: 6 228 329,25 €.

Devèze jaunak, funtzionamendu diru-sartze horiei buruzko galderarik baduten galdetu die kontseilukideei.

N. Aïçaguerre andreak erran du Arnagaren 2014ko sasoiaren bilana jaso duela, galde egin baitzuen, eta honela laburtu duela berak: ekainaren 30 arte, 2012an eta

2013an baino apalagoa izan zela, lanengatik, baina ez dela gauza handia. 2013 urtea bereziki ona izan zen, Cyrano-ren urteurrena zelako, baina 2012an izan ziren bisitari kopuru berdinak izan zirela 2013an. Halere, harrigarri gertatu zaio adinekoen sartzeen aipamena; 2013an baino 10000 sartze gehiago aipatzen direlarik eta, aldi berean, jende helduen beste horrenbeste sartze gutxiago. Hautetsiak dioenez, ez da adinekoentzako tarifarik; berak ez du gogoan halakorik inoiz bozkatu zutenik.

A.M. Pontacq andreak erantzun dio 2013an halako tarifa bat ezarri zutela eta gero, halako tarifa anitz bazela ikusirik, Labat andreak eskatu zuen ken zezaten eta hala erabaki zutela.

Herri Kontseiluak 2013an erabaki zuen adinekoentzako tarifa finkatzea.

Gero, Ch. Devèze jaunak funtzionamendu gastuak azaldu ditu, artikuluz artikuluz. Ur gastuak gora egin du, tarifek ere gora egin dutelako, bai eta urmaeletan ura ihes doalako; arrakalak hesteko lanak egin dira, baina oraino badira porositateak, nahiz eta 2012an zirenak baino txikiagoak diren. Barneko lanaz egin obretarako hornidurak apaldu dira, 2014an bideetako inbestimenduak handiagoak izan baitira. Gizartekintzarako Herriko Zentroari (GHZ/CCAS) eman dirulaguntza handia izan dela aipatu du: 618 194,25 €.

Hona funtzionamendu gastuen guztizko kopurua: 5 409 142,54 €, eta diru-sartzeena, berriz: 6 228 329,25 €, hau da, funtzionamendu soberakina: 819 186,71 €.

Devèze jaunak galdetu du ea funtzionamendu gastu horiei buruzko galderarik baden.

A. Hiriart-Urruty andreak xehetasunak nahi ditu 6257 artikuluari buruz (hartze gastuak) 764,30 € baitira eta 2013an, berriz, 7 111,57 € izan baitziren.

Devèze jaunak erantzun dio 2013an herriak euskal pastizaren bestaren bazkariaren gastuak hartu zituela bere kargura (5 120 €) eta euskal pastizaren kofradiak 4 384 € itzuli zituela, baina apaltzea, batez ere bestetako bazkaria ez egitetik datorrela erran dio, uztailearen 4ko uholdeak kaltetuekin elkertasunez bertan behera utzi baitzuten.

Auzapez jaunak gogora ekarri die herriak zintzur bustitze bat antolatu zuela, Kanboko besteen kari antolatu ohi den bazkariaren orde, eta gonbitan errana zela iragan uztailearen 4ko uholdeengatik zela horrela, elkertasuna erakusteko.

V. Goytino jaunak erran du eskola erritmo berrietarako eman dirua ez dela oso handia (22 694,25 €).

Auzapez jaunak eta Devèze jaunak erantzun dute gastua ez dela hirugarren hiruhilekoarena baizik, hau da, hiru hilabete besterik ez dituela hartzen.

F. Bardin jaunak galdetu du ea nola kalkulatu den SSDZ-SDISerako kotizazioa.

Auzapez jaunak erantzun dio, gaur egun herri orok behar duela SSDZ-SDISn parte hartu. Ekarpena biztanle kopuruaren arabera kalkulatu da eta kontuan hartzen du

ere herria sokorri zentro baten kokagunea dela. Kopuruak, Suteetarako eta Sokorrietarako Departamendu Zerbitzuaren (SSDZ-SDIS) Kontseiluaren erabaki batez finkatzen dira. Herriek ezinbestean egin beharreko gastuak dira. Herri ororen artean banatzen da gastu osoa eta lehen ordaintzen ez zuten zenbait herri orain ordaintzen dute.

Ph. Bacardatz jaunak ohartarazi du Departamenduaren dirulaguntzen artean, eskola garraioetarako parte hartzea anitzez handiagoa dela eta, aldi berean, eskola garraioaren prezioa apaldu dela. Dirulaguntza handiagoa, beraz, eta gastu gutxiago.

Devèze jaunak zehaztu du herriak 2014-2015 eskola-urte osoaren parte hartzearen kopurua hartu duela 2014an, eta horrek diru-sartzeen eta gastuen arteko desoreka ekartzen duela.

Bacardatz jaunak galdetu du, kirol instalazioen baliatzea dela eta, ea ezagun den zenbateko dirulaguntza emanen duen Departamenduak.

Auzapez jaunak erantzun dio Kontseilu Nagusiak bere kolegioen ekipamendua egin behar duela. Lur aski ez denez, hitzarmen bat sinatu dute Kontseilu Nagusiak eta Herriak kirol ekipamenduak eskaintzeko. Eskaintza hori ez da diru gabe egiten. Kontseilu Nagusiak normalean baino diru gehiago ematen du kolegio bat denean; Eskualdeak hala egiten du lizeoekin. Ekipamenduak erabiliko dituzten irakasleek egoeraren txosten bat egiten dute eta kolegioburuari ematen; Herriak begitatzten du eta Kontseilu Nagusiari igortzen, horrek Herriari eman beharreko diru kopurua kalkulatzten du.

Bacardatz jaunak erran du parte hartze horren kopurua ezagutu nahi lukeela.

Devèze jaunak erantzun dio 10 560 €koa dela 2014rako eta 9 354 €koa izan zela 2013an.

Auzapez jaunak erran du Errobiko kolegioak ez duela herri igerilekua baliatzen, seigarreneko klaseek urte osoan aritu behar dutelako igeri praktikak egiten eta, hartara, Landagoieneko igerilekura doaz.

Irastorza jaunak argitu du Errobiko kolegioa berriz ere herri igerilekua baliatzen ari dela.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du nondik datorren, funtzionamendu diru-sartzeetan, baserrialdearen aldeko elkartasunezko diru horniduraren emendatzea (19150 €).

Devèze jaunak erran du hornidura horrek hiru osagai dituela: hiribarnea, orekatzea eta jomuga. Zati horietako bakoitza kalkulatzten da, besteak beste, herriko biztanleriaren arabera, diruzko ahalaren arabera, zerga ahaleginaren arabera, bideen luzeraren arabera, 3 eta 16 urte arteko haur kopuruaren arabera, herriak dituen hektareen arabera, etab. Ikusten diren kopuru handitzeak (+ 9 231 € hiribarnean, + 3 750 € «orekatze» zatian eta + 6 669 € «jomuga» zatian) emendatze horren adierazgarri dira.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea baserrialdearen aldeko elkartasunak ez zuten eskolaldi inguruko jardueren zati bat ordaindu behar.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erran du haur bakoitzari esleitu 50 €ak ez direla oraino ordainduak izan eta horregatik ez direla 2014ko ekitaldian agertzen.

Bacardatz jaunak galdetu du, 74834 eta 74835 artikuluen gainean (lur zergen dispentsen konpentsazioaren egoera), ea horrek erran nahi duen gero eta etxejabe gehiago dugula lur zerga ordain dezaketanak eta gero eta alokatzaile gutxiago, bizitegi zerga ordain dezaketanak. Ikusi du lur zergaren dispentsa gutxiago dela eta bizitegi zergaren dispentsa gehiago.

Devèze jaunak azaldu du horrek erran nahi duela 2014an aitzineko urteetan baino jende gehiagok ordaindu duela lur zerga, baina bizitegi zergari dagokionean, herriak ez du %100a hartzen eta horrek erakusten du badela bizitegi zerga ordaintzen ez duen jende anitz.

Aiçaguerre andreak Arnagako ur fakturari (15 000 €) buruzko azalpen bat eman nahi du. Arnagan, berriztapen lanak egin dira eta soropilak berrituak izan dira, ekainean; horrek ureztatze arras handia eskatu du eta hortik faktura ere handitzea.

Devèze jaunak azaldu du zerbitzuen zuzendari nagusiak emana ziola ureztatze handi horren berri. Sasoia kontuan hartu behar dela uste du, idorteetan ureztapen handiagoa behar baitute soropilek.

Aiçaguerre andreak ohartarazi du soropilak ez direla sekula ekainean egiten eta hortik etor daitekeela fakturaren emendatze hori.

Auzapez jaunak azaldu du poeten txokoko eta laranjondoen lorategiko eta abarreko ontzien garbitzeko ere ur handia baliatu dela.

Aiçaguerre andreak erran du ur berreskuragailuak ezartzeko aukera aztertu beharko litzatekeela.

Auzapez jaunak erantzun dio, lehen, ura errekatik hartzen zela, baina ponpa maiz matxuratzen zela, sistemara sartzan zen hondarrak hondatzen baitzuen, eta orain, ezin dela hala jokatu. Ikusi beharko da ea ur berreskuragailuren bat koka daitekeen komunen gibelean. Lanek eta landatzeek xahutze handiagoa ekarri dute, bai.

Devèze jaunak argitu du herri langileak behin eta berriz aritu direla, azken urte honetan, urmaeleko arrakalak konpontzen eta berak uste zuela, batez ere hortik zetorrela ur xahutze handiago hori.

Devèze jaunak inbestimendu ataleko benetako gastuak aurkeztu ditu gero: 3 031 893,31 €, eta atal horrek ukan dituen gastu nagusiak azaldu ditu.

Mme Hiriart-Urruty andreak galdetu dio ea gastu horien xehetasunak eskura litzakeen.

Devèze jaunak baietz erantzun dio.

Inbestimendu gastuak orotara, agindu bidezko gastuak (195 836,11 €) barne, honenbestekoa da: 3 227 729,42 €.

Inbestimenduko benetako diru-sartzeak: 2 446 181,69 €, eta horiei, agindu bidezko diru-sartzeak (396 935,31 €) erantsi beharzaizkio, hau da, orotara: 2 843 117 €. Devèze jaunak azpimarratu du hala Estatuaren nola Eskualdearen eta Departamenduaren dirulaguntzak apaldu direla.

Bacardatz jaunak erran du finantzen batzordean galdetu zuela nondik zetorren behin-behineko aurrekontuaren eta administrazio kontuaren arteko aldea. Erantzuna izan zen Estatuaren dirulaguntzak 600 000 €tan apalzetik zetorrela, 480 000 €ak, bere ustez, aurrekontua orekatzeko kreditu batetik, eta milioi bat euro ez dira agertzen. Herriak hastapeneko aurrekontuan ordaintzea aurreikusia zuen zubi mailegua zertatik datorren galdetu du, bai eta zer ekarriko lukeen mailegu horren ez ordaintzeak.

Devèze jaunak azaldu du hastapeneko aurrekontuan, 024 artikuluan, eskualdatze moduan, 1 000 000 €ko kopuru bat ageri zela. Eskualdatze hori Gassuan lursailaren 10/14aren saltzeari loturik da. Mailegu ordainketa egitea, Gassuan lursaila salduz gero aurreikusia zen. Salmenta hori ez da, ordea, 2014an egin eta, hartara, ez da mailegua ordaintzen; oreka mantentzen da, halere. Zubi mailegua 2015 urte hondarra artekoa da. Lurraren balioa gora doanez, lursail hori garestixeago eman daiteke. Lursail hori zertarako baliatuko den jakitea da gauza.

Bacardatz jaunak galdetu du ea lursail hori salduko ez balitz, beste proiekturik ba ote den, lursail horretarako.

Devèze jaunak erantzun dio lursail hori salduko dela, interesgarri den prezio batean.

Devèze jaunak azaldu du inbestimendu atal horren balantza honako hau dela: – 384 612,42 €.
Ohartarazi du ekitaldiaren hastapenean, beharra 354 329,73 €koa zela eta 384 612,42 €koa bilakatu dela.

➤ **Ur zikinen aurrekontu gehigarria**

Devèze jaunak ur zikinen aurrekontu gehigarria aurkeztu du; funtzionamendu diru-sartzeak: 545 203,03 € eta gastuak: 378 667,52 €, hau da, atal horrek 166 535,51 €ko emaitza positiboa du. Inbestimendu diru-sartzeak: 1 041 074,41 € eta gastuak: 1 911 034,71 €, hau da, atal horrek 869 960,30 €ko defizita du.

➤ **Banakako Etxeen Ur Zikinen Zerbitzu Publikoaren (BEUZZP/SPANC) aurrekontu gehigarria**

Auzapez jaunak azaldu du aurrekontu horrek eta hilobienak funtzionamendu atala besterik ez dutela.

Devèze jaunak argitu du BEUZZPP/SPANC zerbitzu publiko horren eskumena URA sindikataren eskuetara pasa dela. Diru-sartzeak: 83 633,88 €, eta gastuak: 88 157,59 €, hau da, 4 523,71 €ko emaitza negatiboa da.

➤ **Hilobien aurrekontu gehigarria**

Funtzionamendu atalak 18 770 €ko diru-sartzea du eta 89 796,60 €ko gastua, hau da, 71 026,60 €ko emaitza negatiboa.

Auzapez jaunak alde egin du eta bilkuraburutza Jogleux andreak hartu eta aurkeztuak izan diren administrazio kontuak atalez-atal bozkatzera eman ditu.

➤ **Aurrekontu nagusia**

- Funtzionamendu atala: aho batez onartua
- Inbestimendu atala: aho batez onartua.

➤ **Ur zikinen aurrekontu gehigarria**

- Funtzionamendu atala: aho batez onartua
- Inbestimendu atala: aho batez onartua.

➤ **Banakako Etxeen Ur Zikinen Zerbitzu Publikoaren (BEUZZP/SPANC) aurrekontu gehigarria**

- Funtzionamendu atala: aho batez onartua.

➤ **Hilobien aurrekontu gehigarria**

- Funtzionamendu atala: aho batez onartua.

Auzapez jauna aretora itzuli da eta Herri Kontseiluari eskertu dio 2014ko administrazio kontuak onartu izana eta egin dioten kitapena. Jogleux andreaki bilkura zati horren buru izana eskertzen dio eta Devèze jaunari ere eskerrak ematen dizkio.

5 – 2014ko emaitzen esleipena.

Ch. Devèze jaunak, finantzen axuantak, honako esleipen hauek proposatu ditu:

- Aurrekontu orokorraren 2014ko 819 186,71 €ko funtzionamendu emaitza positiboa, dagokion 2015eko hastapeneko aurrekontuaren inbestimendu diru-sartzeetara,
- Ur zikinen aurrekontu gehigarriaren 2014ko 166 535,51 €ko ustiatze emaitza positiboa, dagokion 2015eko hastapeneko aurrekontuaren inbestimendu diru-sartzeetara,
- Banakako Etxeen Ur Zikinen Zerbitzu Publikoaren (BEUZZP/SPANC) 2014ko 4 523,71 €ko funtzionamendu defizita, dagokion 2015eko hastapeneko aurrekontuaren funtzionamendu gastuetara,
- Hilobien aurrekontu gehigarriaren 2014ko 71 026,90 €ko funtzionamendu defizita, dagokion 2015eko hastapeneko aurrekontuaren gastuetara.

Bacardatz jaunak erran du ez dela soilik funtzionamendu emaitza positiboa sartzen emaitzaren esleipenean, eta galdetu du ea zergatik, inbestimenduak emaitza negatiboa duenean, ez den diferentzia egiten.

Devèze jaunak erantzun dio funtzionamendu atalaren emaitza besterik ezin dela esleitu, inbestimendu atalarena ezin baita inbestimenduetara baizik eraman. Funtzionamendu atalaren emaitza funtzionamendu atalera edo inbestimendu atalera eramaten da. Finantza engaiamenduen kapitala bederen estali behar da. Ezin da funtzionamenduaren emaitza positiboaren eta inbestimenduaren emaitza negatiboaren arteko diferentzia esleitu.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

2014ko emaitzen esleipena gehiengoaren bozez onartu da. Abstentzioak: Hiriart-Urruty andrea, Bacardatz jauna, Aiçaguerre andrea eta Michelena jauna, ahalordez.

6 –Lurren gaineko 2014ko politikaren bilana.

1995eko otsailaren 8ko legearen 11. artikuluari jarraikiz, auzapez jaunak iragan urteko lurren gaineko politikaz eztabaidatzera gonbidatu du Herri Kontseilua.

- Aurrekontu nagusia: ez da lurrik saldu ez eta erosi, 2014an.
- Hilobien aurrekontu gehigarria: erosketarik ez 2014an; salmentek 18 770,00 € ZGko kopurua osatu dute; haietan, 3 kutxategi, 1 558,33 €tan, 4 hilobi bikoitz, 6 375,00 €tan, 3 hilobi lau lekutako, 7 845,00 €tan 6 lekutako hilobi bat, 2 991,67 €tan.

7 – Dirulaguntzen aitzinatzea eta herriak eman diru kopuru finkoak.

Auzapez jaunak proposaturik, 2015eko hastapeneko aurrekontua bozkatu bitartean, Herri Kontseiluak, aho batez onartu du honako hauen ematea:

- Gizarte Laguntzarako Udal Zentroari, dagokion dirulaguntzatik 200 000 €ko aitzinatzea,
- Turismo Bulegoari, dagokion dirulaguntzatik 85 000 €ko aitzinatzea,
- OGEC-i (Andre Maria eskola), herriak agindu diru kopuru finkotik, 35 000 €ko aitzinatzea,
- Errobi Ikastolari, herriak agindu diru kopuru finkotik, 15 000 €ko aitzinatzea.

8 – 2014ko uztailaren 4ko uholdeak: kaltetuei laguntza berezia ematea.

Auzapez jaunak, hitza Saint-Jean jaunari, gai sozialen axuantari eman aitzin, gogora ekarri du kanboarrak eta kanpoko erakundeak eskuzabal izan direla, orotara 39 673 € bildu baitziren uholde horien kaltetuen laguntzeko; emaileetan Biarritz aipa dezakegu (Malandain balleta), 16 240 € eman baititu Agindu zuen bezala, gai

sozialetako batzordeak aztertu ditu Saint-Jean doktoreak egin proposamenak, eta orain hark dizkigu batzordeak egin azterketaren emaitzak azalduko.

Saint-Jean doktoreak erran du gai sozialetako batzordea iragan martxoaren 5ean bildu zela, kaltetuei emanen zitzaien laguntzaz bere iritzia emateko. 27 173 € bildu dira, jendeek egin emaitzez, eta Secours Catholique sokorri emaileak 12 500 € eman ditu. Secours Catholique sokorri emailearen diruzain Brigitte Haran andreak bilkuran parte hartu zuen.

Kaltetuak lau kategoriatan banatu dituzte: kalte oso handiak ukan zituztenak (13), kalte ez hain handiak zituztenak (17), laborariak (11), eta kasu bereziak (6).

Batzordeak honako banaketa hau proposatu du: 13 000 € kalte handienak jasan dituztenei, hau da, 1 000 € bakoitzari, 8 500 € kalte ez hain handiak jasan dituztenentzat, hau da, 500 € bakoitzari, 3 300 € laborarientzat, hots, 300 € bakoitzari, eta 1 200 € autoa galdu zuten SOBAMATEko langileentzat, hau da, 200 € langileko, eta 300 € pertsona bati, asurantzak ordaintzen ez dion frankizia parte ordaintzeko. Guztira: 26 300 €. Eman gabeko 873 € geratzen dira, baldin eta inor agertuko balitz. Bestela, kopuru hori Gizarte Laguntzarako Udal Zentroari (GLUZ/CCAS) emanen zaio.

Secours Catholique sokorri emaileak eman zuen kopurua kalte oso handiak jasan zutenei (634 €) eta kalte ez hain handiak jasan zituztenei (250 €) banatu zaie.

Kalte oso handiak jasan zituztenek 1 634 € ukanendituzte, orotara, eta kalte hain handiak jasan ez zituztenek, berriz, 750 €.

Auzapez jaunak eskerrak eman dizkio Saint Jean medikuari, bilkura prestatzeko Valérie Mornon andrearekin egin lanarengatik. Gai sozialen batzordearen iritzia aho batez emana izan da. Secours Catholique sokorri emaileak txeki bidez emanen ditu, zuzenean, laguntzak, baina laguntzak esleitzeko, Herriko Etxearekin elkarlanean aritzea onartu du, batzuei laguntzerakoan besteak ez kaltetzeko. Saint Jean medikuak diru kopuru finkoak ezar daitezela proposatu du, jende anitzek ez baitu dosierrik aurkeztu nahi ukan. SOBAMAT enpresako langileen kasua aipatu du; ez dira kanboarrak, baina Kanbon izan dira kaltetuak eta autoak galdu dituzte, gehienetan asurantza eskasa zutelarik.

Auzapez jaunak Herri Kontseiluari proposatu dio herriaren laguntzak banatzeaz erabaki dezan, Secours Catholique sokorri emaileak zuzenean emanen baitie kaltetuei laguntza. Eskertu ditu ere elkartasuna erakutsi duten elkarte loteria antolatzaileak (FNACA, US Cambo, Rotary, parrokia), Kanboko Gurutze Gorria, Arraga abesbatzak, parrokia, Celhaya elkarteak, partikularrak, Biarritzeko Herria (Malandain balletak), eta Barbotan les Thermes eta Getariako herriak, lehen izan antzeko gertakari batean Kanbok haiek lagundu zituelarik. Horrez gain, badira kaltetuei proposatu zaizkien laguntza materialak ere.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

9 – Gizarte Laguntzarako Udal Zentroaren (GLUZ/CCAS) ikuskatzea.

Saint Jean medikuak erran du zentro horretan azaldu diren arazoak (absentismoa, lan karga sobera...) ikusirik, zentroaren zuzendariak, auzapezak eta Devèze jaunak zentroa ikuskatua izan dadin erabaki dutela, zerbitzu guztiak aztertuz, langileek duten lan karga ikus eta antolakuntza eraginkorragoa izan dadin. «Patricia Buisson Conseil» bulegoari galde egin zaio ikuskaketa eta orain, Herri Kontseiluak bulego horrek aurkeztu ikuskaketa-proposamenaz iritzia ematera gonbidatua da.

Auzapez jaunak argitu du GLUZ/CCASren aurrekontua murrizta dela eta proposatu du Herriak har dezan bere kargu gastu hori, Herriari lotu establimendu publiko horren aurrekontua ez kargatzeko. Hartara, Herri Kontseiluak behar du erabaki eta ez laguntza zentroaren administrazio kontseiluak.

Bacardatz jaunak galdetu du ea beste bulegoren bati egin ote zaion galdea, aukera desberdinen hautua ukateko.

Saint Jean medikuak erantzun dio bakarra deitu dutela.

Devèze jaunak argitu du herriak «Pintat» abokatu bulegoarekin egin duela lana, bizitegi multzokatuen ur zikinen zerbitzua esleitzerakoan. Beste zenbait kolektibitate ere aritzen dira sona handiko bulego horrekin. Gizarte zentroaren arazoa agertu zaigunean, haiengana jo dugu, aholku eske eta Pintat abokatuak berak, Bordeleko «Patricia Buisson Conseil» bulegora bideratu gaitu. Gizarte baliabideetan espezialista da bulego hori eta ez dugu beste bulegorik entseatu.

Hiriart-Urruty andreak galdetu dio Saint Jean medikuari ea ikuskapen hori gizarte zentroko langileekin adostua izan den, laneko, absentismoko eta abarreko arazoak zirela aipatu baitu.

Saint-Jean medikuak erantzun dio zentroaren zuzendariarekin mintzatu dela, lanez gainezka zela erraten baitzuen eta etxe laguntzako zerbitzua ere hala zela. Laguntza zentroaren administrazio kontseiluak onartu du ikuskapena egin dadin.

Hiriart-Urruty andreak dio, hartara, langileak ikuskapen horren jakinaren gainean direla.

Saint Jean medikuak baietz erantzun dio.

Auzapez jaunak argitu du ez dela langileen aurkako ikuskapena, baina on dela kanpotik eman soa ukan dezaten, zerbitzu batean arazoak badira. Argibide oso ona dateke.

Hiriart-Urruty andreak zehaztu du berak ez duela erran langileen aurkakoa zenik.

Saint Jean medikuak erran du bulego horri langile bakoitzaren lan karga kalkula dezan galdegin zaiola eta zentroko langile oro ikusi ditu, ez etxez etxeko laguntza zerbitzukoak soilik, baina baita haurtzaindegikoak, janariak eramate zerbitzukoak, Ostatatze Gabeko Aisialdi Harrerakoak (OGAH/ALSH), antolamendua eraginkorra ote zen ala berrantolaketa baten beharra ote zen ikusteko. Egiteko horiek eman zaizkio.

Auzapez jaunak galdetu du ea noiz ukanen dituzten horren emaitzak.

Saint Jean medikuak erantzun dio emaitzak hemendik hilabete baten buruan edo beharko lirakeela heldu.

Hiriart-Urruty andreak seinalatu du adituen proiektuan errana dela eskuhartzeen abiatzea otsailaren erdialdean eginen zela. Hartara, jadanik hasiak dira, Herri Kontseiluak bozkatu aitzin.

Saint Jean medikuak erran du bera eta laguntza zentroaren zuzendaria Buisson andrearekin bildu zirela eta zerbitzuaren ebaluazioa lehenbailehen hastea erabaki zutela, lanera hutsegite anitz zirelako. Administrazio kontseiluak galde egin zuen ikuskapena lehenbailehen egin zedin.

Devèze jaunak erran du Buisson andrearekin bildu zela, lanei ekin baino lehen. Egitekoa zehaztu behar zitzaion. Egin beharrekoa zehaztu behar zen, baldintza agiri bat ezartzeko. Elkarrekin mintzatu dira, baina egitekoaren funtsa egiteko da oraino.

Saint Jean medikuak zehaztu du laguntza zentroaren administrazio kontseiluak hartu duela erabaki hori eta Herri Kontseiluaren erabakia behar dela, laguntza zentroak ezin duelako gastu hori bere kargu hartu.

Auzapez jaunak Saint Jean medikua eskertu eta bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

10 – Jabego publikoaren baliatzea: dispentsa zati bat.

Auzapez jaunak aipatu du uztailearen 4ko gertakariak gogorki jo dituztela merkatariak, bainuetxea hestearen ondorioz. Uholdeek zuzenki kaltetu zituztenei laguntza bat eman zaie, baina zeharkako kalteak ukan dituztenak ere lagundu behar dira. Horregatik, Herri Kontseiluari proposatu dio, 2014ko bigarren seihilekoan, jabego publikoaren zati bat baliatzen dutenei, horren ordainaren dispentsa egitea. 2014ko ordainketa jadanik egin dutenez, 2015erako %50eko dispentsa erabaki dezan proposatu dio kontseiluari, herriko jabego publikoa baliatzen duten merkatarientzat.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea kalkulua egin izan den, dispentsa horren kopurua ezagutzeko.

Auzapez jaunak kopuruak eman ditu.

Lespade andreak galdetu du ea zendako ez den zerrenda horretan Jérôme jatetxea ageri, panel bat ematen duelarik espaloian.

Auzapez jaunak erantzun dio espaloia departamendu bide batekoa dela, ez herri bide batekoa, baina egin daitekeela, halere, hirigunean baita jatetxea.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du. Aho batez onartua.

11 – Familia eta gizarte laguntzetarako elkartea: hitzarmena.

Saint Jean medikuak, kargudun axuantak erran du Herri Kontseiluak erabaki behar duela familia eta gizarte laguntzarako elkartearen eta Kanbo Herriaren arteko 2015erako diru emate hitzarmenaz. Hitzarmen horren xedea ama laguntzaile taldearen funtzionamendua 9.972 €ko kopuru batez sostengatzea da. Kontseilu Nagusiak bertan behera utzi du bere laguntza, 2014ko uztailaren lehenaz geroztik. Horrek diru arazoak sortu dizkio elkarteari. Parte hartzea ama laguntzaileen kopuruaren arabera kalkulatu da eta Kanbok 42 ditu.

Hiriart-Urruty andreak gogora ekarri du ama laguntzaileetan, zoritxarrez, gutxi direla euskaldun.

Auzapez jaunak, Herri Kontseiluari, hitzarmen hori sinatzeko baimena eman diezaion galdegin dio.

Aho batez onartua.

12 – Donapetiria auzoko lursail baten ematea.

Auzapez jaunak Herri Kontseiluari jakitera eman dio, 2000ko ekainaren 9ko erabaki batez Herri Kontseiluak erabaki zuela Villain senar-emazteei saltzea, Donapetiria auzoan, haien jabegoaren ondoan den lursail bat. Jabego pribatuz inguratu lursail bat da.

Garai hartan, Villain senar-emazteek ez zioten proposamenari jaramonik egin.

Iragan urriko 23ko gutun batez, Villain senar-emazteek BO 0196 kadastra zenbakidun eta 47 m² azaleradun lursaila erosteko proiektuari ekin nahi lioketela zioten.

Jabegoaren Zerbitzuak, 2014ko abenduaren 23ko gutun batez 75 €/ m² bakoitzeko estimatu du lursail horren egungo prezioa. Lehen, 2000. urtean, 80 libera metro karratuko estimatu zen, zerga gabe.

Auzapez jaunak zehaztu du lursaila ezin duela Herriak balia, lursail pribatuen erdi-erdian delako, eta orain artean Villain jaun-andreek dutela zaindu.

Auzapez jaunak Herri Kontseiluari proposatu dio lursail hori Villain jaun-andreei saltzeko printzipioaz erabaki dezala, metro karratuko 75 eurotan, hau da, orotara, 3.525 euro, 47 m²etarako.

Aho batez onartua.

13 – Arnaga – arkitektura antolamendu lanak: 1. gehigarria eta dirulaguntza eskariak.

Auzapez jaunak gogora ekarri du parkearen berriztatze eta balioztatze lanen kariatara, Kultura Gaietarako Akitaniako Eskualde Zuzendaritzarekin (KGEZ/DRAC) elkarlanean, herriak hiru zatitan banatua izan den merkatu bat egin duela; zati bat finko da eta beste biak baldintzatuak.

Lanetako azken bilkuretan, Kultura Gaietarako Eskualde Zuzendaritza bertan zelarik, operazio gehigarriak galdatu dira. Hona zer hartzen duten:

- Pergola handiaren eta pergola aitzineko eskaleretako obra-larri eta teilatu lanak, bai eta pergolaren eta laranjondoen berotegiaren artean den gainerako lorategia ere,
- Pergolaren hegoaldean ziren bi ontzien berriz ematea,
- Pergolaren eta etxaldearen artean den berotegi txikiko barneko guneko lauaren berriztatzea.

Horren berdintzeko, hastapenean aurreikusi zenbait lan kendu dira proiektutik.

Aldaketa horiek hastapeneko merkatua berregokitzera behartzen dute eta 32 937,88 € ZG den gehigarri bat ekartzen. Lan horiek honela ordainduko dira: %40 Estatuak, %40 Eskualdeak eta Departamenduak. Gainerako %20a Herriaren kargu da.

Bacardatz jaunak galdegin du dokumentuak bilkura baino lehen igor dakizkion, aztertzeko denbora ukan dezan.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak argitu du aldaketa horiek Arnagan, 2015eko martxoaren 3an egin zen bilkuran -Voinchet jauna bertan zelarik- egin zirela, hau da, 2015eko martxoaren 9ko herri kontseilurako deialdiak igorriak izan ziren egunaren biharamunean.

Auzapez jaunak erran du Akitania Eskualdeko Kultura Zuzendaritzaren adostasuna galdegitea komeni duela eta hark Herriari lehenbailehen erabaki dezan eskatzen diola.

Auzapez jaunak Herri Kontseiluari eskatu dio baimena eman diezaiola 32 937,88 € ZG den lehen gehigarria sinatzeko eta Estatuaren, Eskualdearen eta Departamenduaren laguntzak eskatzeko.

Aho batez onartua.

14 – Arnagako lorategiak eta etxea argiztatzeko lanak: enpresa izendatzea.

Auzapez jaunak erran du berriak izan diren lorategiak argiztatzeko deialdi bat egin dela. Lan horietan zorroak emanak izan dira, baina orain argiztapena antolatu eta gauzatu behar da. Garrantzi handiko da hori, Arnagan uda honetan eta hurrengo urteetan egingen diren ekitaldietarako.

Kopurua 156 000 € ZOB litzateke, argiztapena antoatzeko, argiztapen materiala eta kableak erosteko, zorroetan kableak pasatzeko eta materiala ezartzeko, lanen jarraipena egiteko, argiztapena kudeatuko duen tresna instalatzeko eta horretan arituko diren langileak prestatzeko. Horien guztien osagarri, materialaren eta kudeaketa tresnaren mantenimendu kontratu baten kopurua kalkula dadin eskatu da.

Bi hautagaik erantzun diote deialdiari, eskaintza bana eginez: SOCOREM enpresak eta PHILIPS enpresak. Pleguen irekitzea iragan otsailaren 23an egin zen. Herriaren zerbitzu teknikoek eskaini dute proposamenen azterketa bat eta Philips enpresa hartzea gomendatu dute. 130 000 € ZG da eskaintza, hau da, 156 000 € ZOB; horri mantentze lanen kostua gehitu beharko zaio; PHILIPS enpresarena SOCOREM enpresarena baino merkeagoa da. PHILIPS enpresak hiru hilabeteko epea eskaintzen du, eta SOCOREM enpresak 4,75 hilabetekoa. PHILIPS enpresak uztailaren erdialderako amaitzea aurreikusten du, eta SOCOREM enpresak, aldiz, abuztuaren hondarrerako, eta azken hori ez da garai egokia, uztail-abuztuan zenbait gertakari proposatzeko asmoa baita.

PHILIPS enpresaren eskaintzak interesgarriago dirudi; eszenografo bat bertan zelarik egin dira saio zenbait eta, gainera, kanboar batek jarraitzen du dosierra eta erantzun dio eskaintza deialdiari.

Auzapez jaunak Herri Kontseiluari proposatu dio PHILIPS enpresaren eskaintza hauta dezan.

Bacardatz jaunak dio dosierrean argiztapenaren asmatzea ere ageri dela. Merkatuari erantzuten dion enpresak argi oro behar du plantan eman, proiektore oro, eta ez du ikusten nola enpresa batek eskain dezakeen proiektu bat, zorroak jadanik ezarriak direlarik.

Auzapez jaunak erantzun dio espezialistak etorri direla, zorro nagusiak non jarri ikusteko eta horietatik abiatuz, argiztapen aukera anitz badela. Bi enpresek jakin dute zorro horiek non jarriak ziren, planoak eman baitzaizkie.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

15 – Ama eskolaren berriztapen lanak: obralariaren izendatzea.

Auzapez jaunak E. Aizpuru andreari eman dio hitza eta axuant kargudun horrek ama eskolako berriztapen lanak aurkeztu ditu. Lanak udako eskola oporretan eginen dira. Zenbait azken ukitu Omiasaindun bururatuko dira, beharbada. Hastapenean, lanentzat aurreikusi kopurua 180 000 € ZG ingurukoazen, baina gero, eskatu diren lan gehigarriengatik -teilatuen berritzea eta irazgaiztasuna, tuioen berriztapena eta hondaturik ziren ageriko egurrezko horniduren berriztapena-, 210 000 € ZG izatera heldu da.

Herri Kontseiluari berriztapen lan horietako obralaria izenda dezan proposatu zaio.

Deialdi bat egin da eta hiru hautagai aurkeztu dira:

- «Eliane Mendiboure et Ingétudes» bulegoa: %9,5ko tasa, hau da, 19 950 € ZG
- «Lafaurie-Barbe» bulegoa: %9ko tasa, hau da, 18 900 € ZG,
- «Compétences Ingénierie Services»: %6,95ko tasa, hau da, 14 590 € ZG.

Aizpuru andreak azaldu du «Ingénierie Services» enpresak proposatu tasa ez dela horrelako lanetan erabili ohi direnen artean.

Eliane Mendiboureren bulegoa aritua da jadanik Herriko Etxearentzat eta ongi egin du lan. Gainerako bi hautagaiak ezezagunak dira. Bestalde, Eliane Mendibourek Herriaren eraikinen berriztapen energetikoaren dosierra dohainik prestatu du. Zerbitzu teknikoek abisu bat eman dute «Compétences Ingénierie Services» enpresaren eskaintzaren gainean, ohi ez den maila apal-apalekoa baita.

Herri Kontseiluari erabaki dezan proposatu zaio.

Bacardatz jaunak erran du, orain arte, pleguen irekitze bat, Herriko Etxearen teknikarien azterketa tekniko bat eta, aztertu ondoren eztabaidatzeko, batzordearen beste bilkura bat egin izan direla beti. Baina bi proiektu horietan, ordea, Arnagaren argiztapenerako eta ama eskolaren berriztapenerako, ez dela azterketa ondorengo bilkurarik egin eta horregatik etorri zela bera larunbatean, dosierak aztertzeraz. Eskaintza deialdietako batzordearen funtzionamendua aldatu ote den galdetu du.

Auzapez jaunak erantzun dio proiektu horiek ez direla eskaintza deialdien bidez esleitzen eta, hartara, ez dela eskaintza deialdi batzorderik. Gauzak argiki egiteagatik deitu da eskaintza deialdietako batzordea. Izan ere, batzordea bi aldiz bildu ohi da: lehenik, pleguen irekitzeko, eta gero, eskaintzak aztertu eta egiaztatu ondoren, Herri Kontseiluari aurkezteko. Testuek ez dute horretara behartzen, baina auzapezak, kargua hartu zuenetik, eskaintzen deialdietako batzordea biltzen du beti, iritzia eman dezan. Horren ondoren, Herri Kontseiluak du erabakia hartzen. Jokamoldea ez da aldatu, baina Herri Kontseiluaren bilkura hau programatua zen jadanik eta zerbitzuek, denbora irabazteko, eskoletan ezin baita garai jakin batzuetan baizik lan egin, puntu hau bilkuraren gai zerrendan sartua izan zedin galdatu zuten. Auzapez jaunak gaineratu du komeni duela, batzordekideak pleguen irekitzera gonbidatu ondoren, proposameneren azken azterketara ere gonbidatuak izan daitezzen.

Auzapez jaunak erran du Mendiboure andreak Herriarentzako zenbait lan eginak dituela jadanik eta beti ongi pasatu dela.

Lespade andreari ez zaio egoki iruditzen «Compétences Ingénierie Services» bulegoaren proposamena ez hautatzea. Tasa apal izateak ez du erran nahi lana ez denik ona izanen.

Aizpuru andreak aipatu du arkitektoaren tasa %8 eta %10 artean izan ohi dela, eta proposamen hori lana lortzeko soilik egina izan ez ote den beldur da.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Herri Kontseiluak aho batez izendatu du «Eliane Mendiboure et Ingétudes» bulegoa, ama eskolaren berriztapen lanetarako obralari.

16 – Ur zikinen sareko lanak: beharkizun hitzarmena.

Devèze jaunak, axuant kargudunak, erran du, 7 aritzen karrikako ur zikinen sarearen antolakuntzaren kariatara, Herriak hoditeria publikoa lursail pribatuan jarri nahi duela.

Herriak beharkizun hitzarmen bat sinatu behar du, ukituak diren jabeekin: Dermit andrearekin, François Hayet jaunarekin eta Oxaran jaunarekin.

Beharkizun hitzarmen hau Baserrialdeetako eta Itsas Arrantzako Kodearen L.152-1 artikulua du arautzen, ur zikinen hoditeria publikoak jabego pribatuetako hondoetan jartzearen gainean eta ezarriko diren obrak mantentzea eta zaintzea direla eta, alderdi bakoitzak dituen eskubide eta betebeharrak seinatuz.

Herri Kontseiluari galdegin zaio baimena eman diezaion auzapez jaunari, ukituak diren jabegoetako bakoitzarekin beharkizun hitzarmen bat sina dezan.

Auzapez jaunak galdegin du, hitzarmenaren hondarrean ageri den «Herriko Etxea» aipuaren ordez, «Kanboko Herria» idatz dadin, herriko etxea eraikin bat baita eta ez tokiko kolektibitate bat, zuzenbide publikoko legezko pertsona.

Auzapez jaunak Herri Kontseiluari beharkizun hitzarmena onar dezan galdegin dio eta aho batez izan da onartua.

17 – Musika irakaskuntza: lanpostu baten kentzea eta beste baten sortzea.

Musikaren irakaskuntzaren eskumena Errobiko Herri Elkargora eskualdatua izan denez, auzapez jaunak erran du hemendik goiti, irakaskuntza hori ez dutela herriek eginen, ez bada Herri Elkargoak alde batetik, eta bestetik, Musikas elkarteak, hau da, herrietako elkarten biltzaile den elkarteak. Musikas elkartearen barnean, Kontseilu Nagusiaren eta Herri Elkargoaren ordezkariak dira. Eskualdaketa horren ondorioz, Kanbon musika sustatu eta irakatsiz, misio kargudun gisa ari zen pertsonarekin Herriak sinatua zuen zuzenbide publikoko mugagabeko kontratua eteten da. Ikusi da pertsona horrek, gaur egun Musikas-ek duen eskumenaren eremuan dela irakasten ari eta astean 12 oren egiten dituela Kanbo herriarentzako misio kargudun gisa. Lanaldia %10etik gora aldatzen denean, jatorrizko lanpostuaren kentzea gertatzen da eta beste lanpostu bat sortzen, lanaldi berriarekin. Hartara, lanaldi osoko misio kargudun lanpostua kentzen da eta lanpostu berria sortzen da, interesdunari proposatzen zaizkion asteko 12 orduekin. Musikas elkarteak mugagabeko kontratu bat eskaintzen dio pertsona horri, Kanbo herriarentzat lan egin dezan; halatan, lansaria mantentzeko bermea du eta, horrez gain, hilean 200 €ko emendatze garbia ukanen du. Bazarde teknikoak iragan otsailaren 20an aldeko iritzia eman dio aldaketa honi, 5 boz alde eta abstentzio batez.

Auzapez jaunak Herri Kontseiluari proposatu dio alda dezala lanaldi osoko etengabeko misio kargudun lanpostu baten asteko lanaldia, musikaren irakaskuntzaren eskumena Errobiko Herri Elkargoari eskualdatu zaiolako, Errobiko Herri Elkargoak 2013ko martxoaren 5ean eta Kanboko Herriak 2013ko martxoaren 18an erabaki zutenez.

Batzorde Teknikoak aldeko iritzia eman zuen 2015eko otsailaren 20an eta orain, auzapez jaunak Herri Kontseiluari proposatu dio

- ken dezan, 2015eko martxoaren 10etik goiti, misio karguduneko lanaldi osoko lanpostu iraunkor bat,

- sor dezan, data horretatik goiti, misio karguduneko denboraldi murrizteko (astean 12 oren) lanpostu iraunkor bat,

eta horri dagokion lan kontratuaren gehigarria sinatzeko baimena eman diezaion.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea zer dioen interesdunak proposamen horren gainean.

Auzapez jaunak erantzun dio interesdunak jakitera eman duela ez dela bi kontratu horiek sinatzearekin ados, elkarri loturik eta langilearen onerako badira ere. Batzorde Teknikoari luzaz azaldu dio hori. Auzapez jaunak hastapenetik xerkatu du langileak ez zezan deus gal lansarian. Alderantziz, lehen baino gehiago irabaziko du. Berriz ere proposatuko zaizkio aldaketa hauek langileari eta ez baditu onartzen, lanpostua kendu besterik ez da egingen.

Hiriart-Urruty andreak xehetasunak galdegin ditu. Herriak asteko 12 oreneko lanaldi murrizteko lanpostu iraunkorra sortuko du. Zer egingen du langileak gainerako denboran?

Auzapez jaunak erantzun dio asteko 12 orenetatik at, interesduna musikako irakasle dela, Musikas elkarteak proposatu kontratu baten pean eta horrek lansaria osatzen diola.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea lehengo lansariaren berdina bermatua zaion, kontuan hartuz Musikas elkartearen zuzenbide pribatuko elkartearen dela.

Auzapez jaunak berriz ere azpimarratu du bi lansariaren kopurua orain jasotzen duenaren berdina dela, gehi 200 € hilean.

Hiriart-Urruty andreari sinestezina egiten zaio interesdunak ez onartzea eta arrazoiren bat izan behar duela.

Auzapez jaunak erran du hainbat bilkura egin dituztela eta ez dela beste biderik. Zerbitzu publikoaren beharretara egokitzeko da, dagoeneko Herriak ez baitu musika irakasteko eskumena. Herriak interesdunari ordainduko dizkion lansariak Herri Elkargoak ordainduko dizkio Herriari, eskumena eskualdatzen den unetik goiti. Legeak behartzen du Herria horrela jokatzera. Interesdunak ez baditu bi kontratu horiek sinatzen, aurreabisu bat egingen zaio eta elkarriketa bat harekin egingen dugu. Auzapez jaunak argitu du Herriak prozedura hori egin behar duela. Herri Elkargoak horretarako jarri duen adituen bulego batek aztertu eta proposatu du aterabide hori.

Aiçaguerre andreak galdetu du ea kontratuaren aldatzeak erretretan eragingen dion, bi kontratu desberdin ukanen baititu. Funts berberak baliatuko dira erretretaren kalkulatzeko?

Auzapez jaunak erantzun dio deus ez dela aldatuko, interesduna ez baita eta ezin baita izan funtzionari. Zuzenbide publikoko edo pribatuko kontratuak dira eta erretretarako eskubide berdinak eskaintzen dituzte.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartua. Abstentzioak: Hiriart-Urruty andrea, Bacardatz jauna, Aïçaguerre andrea, eta Michelena jauna, ahalordez.

18 – Langileak: sasoiko lanpostu baten sortzea.

Auzapez jaunak Herri Kontseiluari proposatu dio sasoiko lanpostu bat sor dezan, mediatekan, 2015eko uztaileko. Mediatekaren arduradunak galdatu du lanpostu horren sortzea, mediatekaren jarduna handia baita eta langileen urteko opor garaian langile mentsa gertatzen delako eta hori mediatekaren funtzionamenduaren kaltetan denez, sasoirako ordezkot baten beharra dutela erran du.

Lanpostua asteko 35 orenekoa izanen da, 2015eko uztailean aritzeko.

Aho batez onartua.

19 – Auzapezaren erabakien berri.

Auzapez jaunak gogora ekarri du Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusiko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera eta Herri Kontseiluak 2014ko apirilaren 7an hartu erabakiari jarraiki, honako hauen berri eman duela:

a) ezezko erabakiak, erosteko lehentasunari dagokionean, 2015eko otsailaren 7tik 27ra bitartean:

- Lursailak: 1
- Etxeak: 0
- Apartamentuak: 3

b) hilerriko kontzesioen emate eta berriro hartzeari dagokienean, 2015eko otsailaren 7tik 27ra bitartean:

- Kontzesioen erostea, 15 urterako: 0
- Kontzesioen erostea, 30 urterako (+ hilobiak): 2
- Kontzesioen erostea, 30 urterako (+ kutxategiak): 0
- 15 urterako kontzesioen berritza: 0
- 30 urterako kontzesioen berritza (hilobiak): 2
- urririkako lurren berriz hartzea: 0

14 – Hainbat gai.

- Auzapez jaunak Herri Kontseiluari jakitera eman dio Errobiko Herri Elkargoak, Kanboko Herriak bezalaxe, aurtengo Korrikaren kilometro bat erostea erabaki duela. Martxoaren 20an, ostiralarekin, goizeko 8etan, 142 kilometrora, hau da,

Kanbo eta Itsasu arteko biribil berrira gonbidatuak dira herri kontseilariak, langileak eta herritar guztiak, 2015eko Korrika honetan parte hartzera. Auzapez jaunak erran du bere diru bereaz ordaindu duela Herriko Etxearen sargian den panela.

- Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea Estatuaren zerbitzuek erantzunik eman ote duten karabanen eremu berria dela eta.

Auzapez jaunak dio ezezko erantzuna jaso duela, hots, egiteko den Uholde Arriskuen Prebentziorako Plana (UAPP/PPRI) edo -Herriak eginen ez dituen, garestiegiak baitira- bestelako azterketa osagarriak egin bitartean, lursail horretan ezin direla jendeak gaez koka ez eta lanak egin erantzun dute Estatuaren zerbitzuek. Aldiz, aparkaleku bat egin daiteke. Informazio hori bainuetxearen zuzendariari eman dio, harekin ikusteko bainuetxean lanean ari direnentzako aparkalekua egiteko aukera. Horren ordainez, galdegin du ea Herriak balia ote lezakeen, barnean, aurtiki berri duten komentua zen lekuan, egin den aparkalekua. Heldu den apirilean bainuetxeko zuzendariarekin bilkura bat eginen da.

Hiriart-Urruty andreak erran du bainuetxeko zuzendariak, telebistan, 50 zentimetroko harresitxo bat aipatu duela eta horrek administratiboki blokatzen zuela erran. Galdetu du ea Herriak bazekien hori, hirigintza batzordea ez baita aspaldi -hilabete zenbait bederen- bildu.

Bardin jaunak erantzun dio laster bilduko dela.

Auzapez jaunak dioenez, bainuetxeak galde bat egin du eta Estatuak arrastatuko du, prefetari hala galdegin baitzaio. Auzapez jaunak jarrera horrekin bat egiten du, Kanborentzaz eta inguruko herrirentzat funtsezko jarduera baita bainuetxearena, sortzen dituen lanpostuengatik eta ekonomia zeharka ere sustatzen duelako. 2014. urtea guztientzat izan da gogorra (merkatariak, ostalariak, jatetxeak, kanpinak...). Baldin eta Herriak artamendu establimentuak eta bainuetxea hesten uzten badu, horren kontra deus egin gabe, Kanbo herriak bere indar ekonomikoa galduko du. Horregatik nahi du proiektu hau lagundu, bainuetxearen etorkizuna baita hor jokatzen. Jabe den sozietateak eta asurantzak konpainiek ez baitituzte urtero kalte berdinak ordainduko edo kopuru berdinak inbestituko. Baldin eta uholde horiek errepikatuko balira, bainuetxeak behin betiko hetsi beharko luke. Bainuetxeak gure ekonomian duen garrantziaz jabetu behar dugu; bainuetxearen iazko hesteak erakutsi digu jarduera horrek nolako eragina duen bertako ekonomian. Horregatik dio auzapez jaunak Pirinio Atlantikoetako prefetari gai honen gainean galdegin.

- Hiriart-Urruty andreak gogora ekarri du, Devèze jaunak, administrazio kontua aurkeztu duenean, fermuki erran duela Uzimendia auzoan den lursaila saldua izanen dela. Badu Herriak lursail horretan proiekturik?

Auzapez jaunak ezetz erantzun dio. Proiekturen bat zehaztuko bada, hirigintza batzordeari jakinaraziko zaio. Christian Devèze-k erran du proiektu zehatzik ez zela eta Herriak lursaila erosi eta berriz saldu behar zuela. Oraingoan, ez da saldua izan eta Herriak mailegua galdatu behar ukan du, diru sartze horren eskasiaren berdintzeko. Gehiengoa duen taldeak bere programa bete nahi badu, diru-sartzeak beharko ditu xerka, Estatuaren zuzkidurak eta Euskualdearen eta

Departamenduaren dirulaguntzak 840 000 €tan apalduko baitzaizkio heldu diren lau urteotan. Proiektuak mugatu beharko ditu, beraz, eta aitzineko hiru agintaldietan erabili diren asmo ez hain handiak erabili, aitzineko urte horietan gauza anitz egin baita. Aurreikusi proiektuen diruztatzeko, proiektuak diru aldetik beregain izan daitezzen saiatu beharko dugu, maileguetara jo behar ez ukateko, aterabide erraza izanik ere, kanboarren kaltetan eta bereziki heldu diren belaunaldien kaltetan baita. Horrexegatik behar du Herriak, Christian Devèze-k erran bezala, lursail hori saldu, diruetan oreka lor dezagun eta ororen intereseko proiektuak egin ditzagun. Beste aldetik, ezin dugu zerga oraindik ere emendatzen jarraitu. Gehiengoa duen taldeak ez du oraino erabaki zertarako izanen den lursail hori eta gogoetan ari da, proposamenak egin aitzin.

Hiriart-Urruty andreak erran du epe laburrekoa dela hori eta behin lursaila saldua denean ez dela lur erreserbarik izanen eta hori latza izan daitekeela.

Auzapez jaunak dio hala dela, bai, baina baldin eta lursail horren saltzeak hiribarneko zenbait lursail erosteko aukera ematen badu, interesgarri izan daitekeela salmenta. Gaur egun ez dugu lursail horretan proiekturik.

- Bacardatz jaunak galdetu du ea txokolatetegiaren tokian den proiektuaz zerbait ote dakiten.

Bardin jaunak erantzun du proiektua hirigintza batzordeari aurkeztu zaiola. Batzordearen bilkura horretan egin ziren oharrak helarazi ditugu eta gerora beste batzuk ere egin dira. Proiektua aitzin doa, baina eraikitze baimena ez da oraino emana. Hirigintza batzordearen hurrengo bilkuran aipatuko da berriz dosierra. Gaur egun ez da deus egina.

- Bacardatz jaunak erran du Txikito karrikako merkatariekin mintzatu dela eta galdetu diotela zertan zen karrikaren abiapuntuan saltokiak seinatzeko panela jartzea, hala agindu baitzitzaien.

Jougleux andreak erantzun dio martxoaren 11n bilduko direla merkatarien elkartearekin, saltokien seinatzeko plana aztertzeko; Dor jaunak zehaztu du «ekonomia, merkataritza eta ofizialetza» batzordea heldu den martxoaren 20an bilduko dela.

- Goytino jaunak zehaztu du Pirinio Atlantikoetako Enegia Sindikatuaren (PAES-SDEPA) bidezko taldekako gas eroste moldea hautatu zuela Herri Kontseiluak eta PAES-SDEPAk egin negoziaketak tarifen %15 inguru apaltzea ekarri zuela. Gasaren hornitzailea GDF da beti. Bacardatz jaunak Goytino jaunari galdetu zion zenbateko kostu zuen talde horretara lotzeak. SDEPAk erran du, iazko kontsumoak ikusirik, 176,40 €ko kostua lukeela.

Bacardatz jaunak seinatu du horrek erran nahi duela Herriak kontratua sinatu duela.

Goytino jaunak erran du horrela jakin duela berak lotze hori eraikin orotarako zela, zer kontsumitzen duten kasu eman gabe, eta ez urtean 30 000 kwh baino gehiago kontsumitzen dutenentzat soilik. Apaltze hori eraikin orotarako da,

beraz. Herriak 30 000 kwh baino gehiago kontsumitzen duten eraikinetarako parte hartu behar du nahitaez merkatu horretan.

Bacardatz jaunak erran du Kanboko Herria kontratu berri horretan dela. Berak uste zuen Herri Kontseiluak berriz ere eztabaida eta erabaki beharko zuela, gas hornitzaileen deialdia egin ondoren, kontratua onartzeko. Baina PAES-SDEPAk egin du gas hornitzaileen deialdia eta Herri Kontseiluak deialdia egiteko ordezkartza eman dionez, kontratua sinatzeko ere eman dio.

Goytino jaunak ohartarazi du PAES-SDEPAk erran zuela negoziaketa abiatua zela eta Herria libro zela hara lotzeko edo ez lotzeko.

Bacardatz jaunak erran du hornitzaile baten hautatzea edo ez hautatzea egin ondoren dela, argindarrekin bezala.

Goytino jaunak zehaztu du gaserako GRDF hautatzeak ez duela eztabaidarik sortzen; argindarrerako ikusteko da.

Auzapez jaunak eskerrak eman dizkio Goytino jaunari.

Auzapez jaunak batzarrari jakitera eman dio Herri Kontseiluaren hurrengo bilkura apirilaren 13an izanen dela, 2015eko hastapeneko aurrekontuak bozkatzeko, horren egiteko azken eguna apirilaren 15a baita.

Bilkura 23:30ean bukatu da.